BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4860

42/2015 EBAZPENA, urriaren 30ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, 2015eko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak zuzenean emandako laguntzak edo diru-laguntzak argitaratzea xedatzen duena.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratuak –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsia, eta martxoaren 26ko 1/2015 Legearen artikulu bakarrak aldatua– 49.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseiluak zuzenean ematen dituen laguntzak edo diru-laguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira; beraz, agindu hori betetzeko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2015eko lehen seihilekoan Gobernu Kontseiluak zuzenean emandako laguntzen edo diru-laguntzen zerrenda argitaratzea, zeina ebazpen honen eranskin gisa jasotzen baita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 30a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK
2015EKO LEHENENGO SEIHILEKOA

KONTZEPTUA/ONURADUNAK	SAILA	DATA	ZENBATEKOA
Erabakia, Elkargi E.B.S.kin eta Oinarri, E.B.S.kin hitzarmen bana sinatzea baimentzen duena; hitzarmen horien bidez, 2015eko finantzazioari laguntzeko programa birfinkatzen da.	OGASUN ETA FINANTZA SAILA	2015.01.20	600.000.000,00
Erabakia, Oinarri E.B.S.ri zuzeneko diru-laguntza ematekoa, bere hornidura teknikoen funtsa indartu dezan.	OGASUN ETA FINANTZA SAILA	2015.02.10	1.000.000,00
Erabakia, zeinaren bidez baimentzen baita lankidetza-hitzarmen bat sinatzea Abanto Zierbenako Udalarekin eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioarekin, Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkea jasoko duen eraikina eraikitzeko, zeina erakunde biek erabiltzekoa izango baita.	INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA	2015.03.03	900.000,00
Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta zenbait finantza-erakunderen arteko Lankidetza-hitzarmenaren aldaketa partziala onartzen duena.	OGASUN ETA FINANTZA SAILA	2015.03.10	Finantza-konpromisoaren %60ra arte.

2015/4860 (4/2)
EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2015eko azaroaren 13a, ostirala
217. zk.

Erabakia, Gasteizko udalarekin lankidetza-hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, hiri horretako trafikoko kontrol-kameretatik datorren bideo-seinalea lagatzeko.	SEGURTASUN SAILA	2015.03.31	3.449,23
Erabakia, Azpeitiko udalarekin lankidetza-hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, Azpeitiko Egibar Baserrian dagoen Ingurugiro Etxea Museoa kudeatzeko.	INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA	2015.04.21	360.000,00
Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeei elkarrizketa-laguntzaileak emateko Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioarekin lankidetza-hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematen duena.	HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA	2015.04.27	644.000,00
Erabakia, Errenteria Musikal MEPUri zuzeneko diru-laguntza bat emateko, 2015eko Musikaldia egiteko (musika-eskolen musika-jaia).	HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA	2015.05.05	23.000,00
Erabakia, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako abokatu-elkargoei diru-laguntza emateko dena. Diru-laguntzaren helburua da elkargokideak, 2015ean, doako laguntza juridikoko zerbitzuak eskain ditzaten prestatu eta espezializatzeko gastuak finantzatzea.	HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA	2015.05.12	40.000.-
Erabakia, honen bidez, 2015erako Oinarri E.B.S.rekin oinarrizko eta osagarrizko hitzarmenak sinatzea baimentzeko dena, hitzarmen horien bidez, 2015ko finantzazioari laguntzeko programa birfinkatzen da.	OGASUN ETA FINANTZA SAILA	2015.05.26	Finantza-abalen eragiketen % 75era arte.

2015/4860 (4/3)
EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2015eko azaroaren 13a, ostirala
217. zk.

Erabakia, honen bidez, 2015erako Elkargi, E.B.S.rekin oinarrizko eta osagarrizko hitzarmenak sinatzea baimentzeko dena, hitzarmen horien bidez, 2015ko finantzazioari laguntzeko programa birfinkatzen da.	OGASUN ETA FINANTZA SAILA	2015.05.26	Finantza-abalen eragiketen % 75era arte.
Erabakia, Nafarroako Foru Erkidegoarekin osasun-laguntzari buruzko lankidetza-hitzarmena sinatzeko baimena emateko.	OSASUNA	2015.06.09	4.000.000.-
Erabakia, EIKEN Elkarteari zuzeneko diru-laguntza emateko dena. Helburua: 2015 urtean Innova Basque Audiovisual proiektua finantzatzea.	HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA	2015.06.16	50.000.-
Erabakia, Bizkaiko Hiesaren aurkako Herritarren Batzordeari zuzeneko diru-laguntza ematekoa, gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden kontsumitzaileei eskakizun-maila txikiko arreta eta larrialdi soziosanitarioko zerbitzua eskaintzeko eguneko baliabidea finantzatzeko.	ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA	2015.06.23	50.000.-
Erabakia, Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza zuzen bat ematea baimentzekoa. Helburua: "Lan eta Gizarte Arloko Auditorian eta Aholkularitzan Espezialista izateko Graduondoko Berezko Titulua" lortzeko ikasketak garatzea.	ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA	2015.06.30	20.000.-

2015/4860 (4/4)
EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2015eko azaroaren 13a, ostirala
217. zk.